PrevenSI.
Prevención del abuso sexual infantil

900 440 443
INFO@PREVENSI.ES
WWW.PREVENSI.ES

# NOLA HANDITU DAITEKE SEGURTASUNA ETA HAURREN KONTRAKO BIOLENTZIA SEXUALA SAHIESTU KONFINAMENDUA IRAUTEN DUEN BITARTEAN?

## 01 BIZILEKU ETA INGURU FAMILIARRAK

### Aurretik haurren kontrako biolentzia sexuala EMAN EZ DENEAN

**a) Elkarbizitzarako jarraibideak ezarri**

- Haurrak etxeko zein lekuetan egon daitezkeen eta zeinetan ez zehaztu
- Ateak irekita mantendu
- Pribatutasun uneak adostu
- Haurren une atseginak sustatu

**b) Talde jarduerak bultzatu**

**c) Komunikazio irekia sortu haurra eta nerabearekin**

- Gai afektibo-sexualetaz eta kezkatzen dituzten gauzetaz hitz egiteko prest gaituztela jakinarazi
- Sekretu onak eta txarrak bereiztera, 'ezetz' esatera eta gorputzeko atal batzuk pribatuak direla eta horiekiko mugak ezartzera erakutsi

**d) Internetera sarbidea eta teknologia berrien erabilera gainbegiratu eta haien erabilerarekiko arauak ezarri**

- Edukiak aztertu eta ezegokiak direnak mugatu
- Gailuak leku komun eta ikusgaietan erabili eta erabilpen ordutegiak ezarri
- Prebentzio informatikoa egin (antibirusa eduki, gailu elektronikoak erabiltzen ikasi, pasahitzak ezarri, web kamera itzali...)
- Haurrekin eta nerabeekin jarduera batzuen arriskuetaz hitz egin (adb. Informazioa partekatzeaz, sexting praktikatzeaz...)

## BIZILEKU ETA INGURU FAMILIARRAK 02

### Aurretik haurren kontrako biolentzia sexuala EMAN DENEAN

**a) Segurtasun plan bat sortu (offline eta online)**

- Larrialdi, polizia, zerbitzu sozial eta lurraldeko fiskaltzaren telefono zenbakia eskura izan
- Familiako kideekin eta beste adiskide batzuekin konexio ziurrak eratu
- Prebentzio informatikoa egin (antibirusa eduki, pasahitzak ipini, web kamera itzali, sexting-a, online grooming-a...)
- Gerta litezkeen arriskuak identifikatu

**b) Gainbegirada areagotu**

- Konfiantzako helduen partetik
- Internet eta sare sozialen erabileran

**c) Biktimizazio bikoitza ekidin**

- Haur eta nerabeen erantzun afektiboak arretaz hartu
- Gai berdinean behin eta berriz ekiten saihestu (haurrak ez badu eskatzen)
- Tratamenduaren jarraipena bermatu (araututa egonez gero)

**d) Erasotzailea bizikidea izanez gero**

- Haien arteko erlazioa eta elkarrekintza behatu
- Ordezko leku batera bizitzera joatea gomendatu edo beste alternatiba bat bilatu
- Tratamenduaren jarraipena sustatu eta prozesuan parte hartu
- Alkohola edota beste substantzia batzuen kontsumoa eragotzi

## 03 HARRERA ETA EGOITZA ZENTROAK

a) Langileen edota boluntarioren jokaera aldi oro ikuskatu eta kontrolatu

b) Langileen eta haur edota nerabeen arteko elkarrekintzak etengabe begi-bistakoak direla ziurtatu

c) Haur edota nerabeekin kontaktu fisikoa izateko baldintzak ezarri eta beste pertsona baten gabezian INOIZ EZ egin

d) Langileak haur edota nerabeetara heltzeko bideak zehaztu eta mugatu baldintza argiak ezarriz

e) Teknologia berrien erabilerari eta online edukiei buruzko arauak ezarri, mugatu eta ikuskatu

f) Haur eta nerabeen kontrako biolentzia barne hartzen duen formakuntza afektibo-sexuala aintzat hartu, betiere haien adinari egokituz

## ARRETA ZENBAKIAK 04

Guztien begi-bistara eta eskura egon beharko dira

**112** Larrialdiak

Haur eta nerabeentzat ANAR laguntza telefonoa
**900 20 20 10 / 116 111**

**Iturriak:**
Canadian Red Cross: www.ifrc.org
Darkness to Light: www.d2l.org
Stop it Now! UK: www.parentsprotect.co.uk

**Itzulpena eta eskertza:** Lorena Magdaleno Manjarrés

Pre ven SI.